

## **NFC MUGIKORREN BITARTEZ ORDAINTZEKO SISTEMAREN PROIEKTU PILOTUAREN GAINEAN GALDERARIK OHIKOENAK**

Dbus 50 erabiltzailearen bila ari da, NFC teknologia duten mugikorren bitartez ordaintzeko proiektu pilotu berritzaile batean parte hartzeko. Teknologia horrek bidaiatzea errazagoa izatea ahalbidetzen du, billetea gailuaren bitartez ordaintzea eta txartela baimendutako salmenta gune batera joan beharrik gabe kargatzen uzten baitu.

### **1. Zer baldintza bete behar ditut NFC mugikorrekin ordaintzeko sistemaren proiektu pilotuan parte hartzeko?**

**Hauek dira bete beharreko baldintzak:**

- Movistarreko bezeroa izatea.
- Samsung Galaxy SIII edo Blackberry modeloko mugikor bat edukitzea, 7.0 baino bertsio txikiagoko sistema eragilearekin eta NFC teknologiarekin.
- Lurraldebus edo Mugi txartel arruntaren titularra izatea.
- [www.dbus.es](http://www.dbus.es) web orrian eskuragarri dagoen formularioa betetzea eta [info@dbus.es](mailto:info@dbus.es) posta helbidera bidaltzea.

### **2. Nola aktibatuko da nire mugikorra Dbusen egiten ditudan bidaiak ordaintzeko?**

Behin eskaria jasota eta baliozkotuta, zurekin harremanetan jarriko gara esateko Movistarreko zer dendatara joan zure ZIM txartela aldatzeko eta egokitutako SIM txartela jartzeko.

### **3. Movistar ez den telefoniako beste operadore baten bezeroa banaiz parte hartu al dezaket?**

Gaur egun sistema Movistarreko bezeroentzat baino ez dago erabilgarri. Halere, proiektuak aurrera egin ahala espero dugu telefoniako beste operadore batzuetakoentzat ere erabilgarri egotea.

### **4. Parte har al dezaket hobaridun Mugi edo Lurraldebus txartela badut, edo Mugi txartel anonimoa badut?**

Ez, proiektu pilotu honetarako Mugi edo Lurraldebus txartel arruntak soilik onartuko dira.

## **5. Parte har al dezaket esandako mugikorraren ezberdina den batekin?**

Ez, NFC teknologiadun Samsung Galaxy SIII edota 7.0. sistema eragilea baino baxuagua duten Blackberry mugikorrekin soilik har daiteke parte.

## **TARIFAK ETA DESKONTUAK**

### **6. Zer tarifa ordainduko ditut telefono mugikorraren bitartez ordainduta?**

Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak Mugi eta Lurraldebus txartel arruntetarako ezarrita indarrean dauden tarifak aplikatuko dira.

### **7. Deskontuak izaten jarraituko dut zerbitzua erabiltzeagatik?**

Bai. Telefono mugikorraren bitartez ordaintzen duenak Mugi eta Lurraldebus txartelekin ordainduta zituen abantaila eta deskontu berberak izaten jarraituko du, hileko bidaien kontagailua telefonoaren SIM txartelean edukiko du eta.

### **8. Non gordeko dira nire bidaiak?**

Telefono mugikorraren bidez ordaintzen diren bidaiak mugikorrari txertatu zaion SIM txartel egokituan pilatuko dira. Hasieran ezingo da kontsultatu egindako bidaiak NFC mugikorrekin egindako ordainketetan, baina aurrerako erabilgarri jarriko da.

### **9. Mugikorra aktibatu bezain laster erabili dezaket garraio publikoa?**

Bai, sistema aktibatzean Dbusek 20 bidaia kargatuko baitizkie parte hartzaileei opari gisa.

## **BIRKARGA**

### **10. Nola kargatu dezaket nire txartela?**

Google Playren bitartez deskargatu daitekeen *SITE ticket* aplikazioari esker txartela mugikorretik zuzenean kargatu ahal izango duzu. Horretarako Birkargatu dioen tokian sakatu eta bankuko txartel bat erregistratu beharko duzu.

### **11. Seguru al da txartela mugikorraren bitartez kargatzea?**

Bai, txartela kargatzeko ingurunea segurua da, eta segurtasuneko pasahitzak erabiltzen dira.

## **12 Posible al da txartela estanko, kiosko edo salmenta gune batean kargatzea?**

Ez, txartela bakarrik mugikorraren bitartez kargatu daiteke, kargatzeko modua errazagoa eta azkarragoa baita.

## **13. Txartela Wi-Fi bidez kargatu al dezaket?**

Bai, txartela Wi-Fi sareak erabiliz kargatu daiteke.

## **14. Nola egiaztatu txartela ondo kargatu dela?**

Behin kargatuta, prozesua ondo bukatu dela dioen mezu bat agertu beharko da. Saldoa, une oro pantaila nagusian ikusgai egongo dena, handitu egingo da kargatutako zenbatekoarekin.

## **BILLETEAREN ORDAINKETA/BALIOZKOTZEA**

### **15. Beharrezkoa al da mugikorra piztuta edukitzea eta *SITE Ticket* aplikazioa irekita txartela baliozkotzeko?**

Bai, mugikorra piztuta egon behar du baliozkotzeko, baina ez da beharrezkoa aplikazioa martxan edukitzea.

### **16. Beharrezkoa al da estaldura edukitzea txartela baliozkotzeko?**

Ez., ez da beharrezkoa telefono mugikorrak estaldura edukitzea billetea mugikorrarekin ordaindu ahal izateko.

### **17. Baliozkotzeko makinatik zer distantziatara jarri behar da mugikorra?**

Gehienez ere 2-3 zentimetrora, hau da, telefono mugikorra baliozkotzeko makinara hurbildu eta makinatik oso-oso gertu gelditu behar da.

## **BILLETEAREN ORDAINKETA GIJONEN**

### **18. Aplikazioak Gijongo autobusetan billetea ordaintzeko aukera ere ematen du. Nola funtzionatzen du?**

Gijonen zure NFC mugikorrarekin txartela baliozkotzeko, goiko erlaitzean aukeratuta dagoen hiria aldatu baino ez duzu egin behar. Ondoren, nahi duzun zenbatekoa

kargatu. Behin

zenbatekoa

kargatuta, Gijongo hiri autobusetan bidaiatu ahal izango duzu, billetea zure mugikorrarekin ordainduta. Gijonen egindako bidaietan, tarifa

tokikoa izango da, eta ez dira Mugi/Lurraldebus txarteleko bidaien kontagailuan gehituko.

## **GALDERAK, IRADOKIZUNAK ETA GORABEHERAK**

### **17. Zer egin behar dut kargatzeko edo baliozkotzeko laguntza behar badut?**

Kargatzeko edo baliozkotzeko laguntzarik behar baduzu edo horren gainean zerbait argitu nahi baduzu, [comunicacion@dbus.es](mailto:comunicacion@dbus.es) helbidera jo dezakezu edo 943 000 200 telefono zenbakira deitu.